

GIDA DIDAKTIKOA



ZATIKIEN UHARTEA

MATEMATIKA
LH 5-6
DBH 1-2

Aurkidibea



Aurkezpena 03

Edukiak 05

Ebaluazioa 09

Glosarioa 11

Helburuak 04

Metodologia 08

Baliabide osagarriak 10

Kredituak 12

Aurkezpena

Eguneroko bizimoduan zatikiak interpretatzea eta balioestea, horra ikasleei bereganatzea oso zaila egiten zaion gaitasunetako bat.

Ikasgelan zatikia zenbait definizio eta adierazpenen bidez irakasten denez, errutinazko ariketa bihurtzen da, zeinaren bidez ikasleek zatikiak adieraztea lortzen baitute errepikapenaren poderioz eta testuinguru jakin batean.

Bestalde, eguneroko bizimoduan ere badute garrantzia zatikiek; izan ere, uste baino gehiago erabiltzen ditugu. Banatze-ariketa arrunt batean, adibidez, inplizituki erabiltzen da zatikiaren kontzeptua: herentziak, zergak, tributuak, errezetak, zenbait produktu egiteko formulak, era guztietako erosketak... Kopuru osoak ez ezik, zatiaren eta osoaren arteko erlazioa ere adierazten dute eragiketa horiek.

Hau da proiektu honen xedea: zatikiaren kontzeptua eta zatikiekiko eragiketak lantzea eta eguneroko bizimoduan aplikatzea kontzeptu horiek, adibide hurbilak eta ulergarriak erabiliz.



Programa honi esker, zatikiei lotutako kalkuluak eta zenbaki-estimazioak segurtasun eta konfiantza osoz egingo dituzte ikasleek eta, gainera, ikasitakoa zer egoeratan erabil dezaketen ikusi eta balioetsiko dute.

Helburuak

- 1 Eguneroko bizimodutik hartutako problemak aurkeztea eta ebaztea, banaka edo taldeka, zenbait estrategia erabiliz, ebazpen-prozesua justifikatuz, emaitzak interpretatuz eta egoera berrietara aplikatuz, ingurune sozialean eraginkortasun handiagoz jarduteko.
- 2 Ezagutza matematikoa aplikatzea eguneroko bizimoduko egoerak ulertzeko eta balioesteko, bai eta beste ezagutza-eremu batzuetan ikasitakoa erabiltzeko aukera atzemateko ere.
- 3 Kalkuluak eta estimazioak egitea, seguru eta konfiantza osoz, egoera bakoitzari ondoen dagozkion prozedurak erabiliz eta emaitzak sistematikoki berrikusiz.
- 4 Lengoia matematikoa erabiliz arrazoitzea eta argudiatzea (ikasleen adina aintzat hartuta, betiere), emaitzak eta ondorioak argi eta koherentziaz justifikatzeko eta aurkezteko.
- 5 Informazioaren eta komunikazioaren teknologia egoki erabiltzea, bai kalkuluetarako, bai zenbait informazio bilatu, erabili eta adierazteko, bai eta matematikak ikasten laguntzeko ere.
- 6 Matematikak eguneroko bizimoduan duten garrantziaz jabetzea eta zertarako balio duten ulertzea. Era berean, ikasleen jarraitutasuna bultzatzea soluzioak bilatzerakoan.



Problemen ebazpena ardatz nagusia da, eta bloke guztiak aztertzen ditu zeharka.

Horregatik, arreta berezia jarri behar zaio.

Edukiak

Gaiaren edukiak egituratzea dute helburu multzoek, eta zatikien ikaskuntzari zentzua ematen dioten kontzeptuak eta ebazpen-prozedurak txertatuta dituzte.



Zatikien bidez ebaz daitezkeen bizitza errealeko problema bat dago multzo bakoitzean.

Problemen ebazpena eta egokitzeko aukera.

- Malgutasuna. Areagotu egiten da kontzeptu bati eskain dakioken denbora, epeak ikasleen berariazko premietara egokituz.
- Zatikiak interpretatzen laguntzen du, mundu errealerara eramanez.
- Ikasitakoari eustea. Hainbat testuingurutara egokitzen dira jarduerak, matematikako kontzeptuak eta prozedurak modu naturalean garatzeko eta ikasteko, berez.
- Koherentzia. Helburua da alderdi matematikoak zein kognitiboak aintzat hartzen dituen proiektu bat diseinatzea, edukiak ulertzeko eta aplikatzeko lagungarria izan dadin.



ZATIKIEN KONTZEPTUA

Definizioa

Zatikiaren osagaiak

Zatiki-motak

Zatiki propioa


Zatiki inpropioa

Zenbaki mistoa

Nola bihurtzen da zatiki bat
zenbaki misto?

Zatikien adierazpen grafikoa

Zatikiak irakurtzeko modua




ZATIKI BALIOKIDEAK

Definizioa

Anplifikazioa eta sinplifikazioa


Bi zatiki baliokideak direla egiaztatzea



ZATIQUIAK

Zenbaki-zatikiak

Aplikatu zatikiak kantitateei



ZATIKIEN ARTEKO KONPARAZIOA

Zatiki positibo bat eta zatiki
negatibo bat

Zatiki propio bat eta zatiki
inpropio bat

Izendatzaile berdina duten zatikiak

Zenbakitzaile berdina duten zatikiak

Zenbakitzaile eta izendatzaile
desberdinak dituzten zatikiak



ERAGIKETAK ZATIKIEKIN

Zatikien arteko batuketa eta kenketa

Zatikien arteko biderketa

Zatikien arteko zatiketa

Edukien zekuentzia

ZATIKIEN KONTZEPTUA	ZENBAKI- ZATIKIAK	ZATIKI BALIOKIDEAK	ZATIKIEN ARTEKO KONPARAZIOA	ERAGIKETAK ZATIKIEKIN
<u>2h</u>	<u>1/2h</u>	<u>1h</u>	<u>1h</u>	<u>6h</u>

Denbora-taulak adierazten du eduki-multzo bakoitzaren eta jardueren denbora-kalkulua. Nolanahi dela ere, jardueren iraupena alda dezake irakasleak, ikasleen premia errealei erantzuteko.



Metodologia



Hasierako diagnostikoa

Irakasleei diagnostikoa egiteko baliagarriak zaizkie jarduerak, haien bidez bistaratzeko zatikiei buruzko ezagutzarekiko ikasleen zailtasunak eta hutsegiteak lantzean.

Egoera horrek kokatzen du abiapuntuak zein diren eta, hortik aurrera, garapen errealerara eraman.



Garapena eta egituratzea

Garapena eta egituratzea: eduki-multzoan ikasitako edukiak lantzen eta erabiltzen hasten dira.



Aplikazioa eta sakontzea

Lehendik jasotako ezagutzei berriro ekiten zaie, eskuratutako jakintza areagotuz egoera eta testuinguru berriak jorratzeko.



Ebaluazioa

Prozesu osoa berrikusten da, ikasturtez ikasturte ikasleek zer ikaskuntza-maila lortu duten jakiteko.

Ebaluazioa

Proiektuko edukien ebaluazioa mailaka egiten da, hainbat ikasturtetakoak direlako.

- ✓ Eguneroko bizimoduko zenbakizko testuak, zenbaki osoak eta zatikiak interpretatzea eta balioestea.
- ✓ Esperientzian oinarritutako iritzirako kalkuluak egitea zorizko jokoetan eta zoria ageri den egoera sinpleen emaitzetan (posiblea, ezinezkoa, ziurra, aukera gehiago edo gutxiago)
- ✓ Matematikako zenbait eduki erabiliz ebatz daitezkeen eguneroko bizitzako problemak identifikatzea eta planteatzea.
- ✓ Zatikizko zenbakiak erabiltzea informazioa interpretatzeko eta trukatzeko eguneroko bizimoduko zenbait egoeratan, eta kalkulu xumeak egiteko eta problemak ebatzeko baliatzea haien baliokidetasunak.
- ✓ Eguneroko bizimoduko arazo xumeak ebatzea eta formulatzea oinarrizko zatikien bidez, ezagutza eta prozedura matematikorik egokienak bilatuz eta erabiliz, eta zuzen ordenatuta eta argi adieraztea, idatziz eta ahoz, problemak ebatzeko jarraitutako bidea.
- ✓ Arrazoiketa-prozesuak eta problemak ebatzeko estrategiak eralbiltzea



Baliabide osagarriak



Online:

<https://es.wikipedia.org/wiki/Fraccci%C3%B3n>

<http://educalab.es/recursos>

http://recursostic.educacion.es/secundaria/edad/2esomatematicas/2quincena2/index2_2.htm

<https://matematicasurjc.blogspot.com/2015/05/tema-1-fracciones-planteamiento-de.html>

<http://www.disfrutalasmaticas.com/numeros/fracciones-equivalentes.html>

Agrega

http://agrega.educacion.es/cas/login?service=http%3A%2F%2Fagrega.educacion.es%2Fvisualizadorcontenidos%2Fj_acegi_cas_security_check

YOUTUBE

<https://www.youtube.com/watch?v=g2rI5mAWPeU>

Kredituak

Egilea

Azul Digital 2020 S.L.

2020

Egokitasun-Ziurtagiria:
2020-11-03

